



Aurre! Planaren memoria Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Foru Plana 2017-2019

Aurre!

**Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari
aurre egiteko I. Foru Plana**

**I. Plan Foral para enfrentar la violencia
contra las mujeres en Gipuzkoa**



Aurkibidea

| | |
|------------------------------------------------------------|----|
| Sarrera | 3 |
| 1- Lanerako markoa..... | 5 |
| 2- Planaren garapen-maila..... | 7 |
| 2.1. Aurre! Planaren aurkezpen laburra..... | 7 |
| 2.2. 2019an planifikatutako ekintzen garapen-maila | 10 |
| 2.3. 2019rako planifikatutako ekintzen garapen-maila | 15 |
| 2.4. 2019an egindako gastu-maila..... | 46 |
| 2.5. 2017-2019ko balantze alderatua | 47 |
| 2.5.1. 2017ko emaitza esanguratsuenak | 47 |
| 2.5.2. 2018ko emaitza esanguratsuenak | 48 |
| 2.5.3. 2019ko emaitza esanguratsuenak | 48 |
| 3- Balorazio kualitatiboa..... | 50 |
| 3.1. Garatutako ekintza estrategikoak | 50 |
| 3.2. Ondorio orokorrak eta etorkizuneko erronkak | 53 |



Sarrera

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak (aurrerantzean Berdintasunerako Foru Araua), 8. artikuluan, helburuei eta eginkizunei buruzkoan, 2.d paragrafoan jasotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari (aurrerantzean Berdintasunerako Organoa) dagokiola “Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren diseinua, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioaren koordinaketa bultzatzea gizarte politikaren esparruan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumenak dituzten departamentuekin”.

Berdintasunerako Foru Arauaren V. Kapituluak, “Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak” deiturikoak, *indarkeria* matxista definitzen du, indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste modu batzuk aintzat hartuz. Horrez gain, indarkeria matxistaren arloan foru-entitatearen esku-hartzeko esparruak jasotzen ditu (ikerketa; prestakuntza; prebentzioa eta sentsibilizazioa; eta arreta), eta baita gizarte-politikaren alorrean eskumena duen departamentuak eta Berdintasunerako Organoak osatutako Batzorde Politiko-tekniko bat sortzea ere (aurrerantzean Batzorde Politiko-teknikoa), zeinak 8. artikuluan jasotakoa betetzeko ardura duen (aurreko paragrafoan aipatutakoa).

2016ko azaroan, **Gipuzkoako Foru Aldundiak Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Foru Plana** onartu zuen, (aurrerantzean Aurre! Plana).

Plan honen helburu nagusia hau izan da:

“Indarkeria matxistaren forma guztiak ikusgarri egitea eta indarkeria sexistari aurre egitea, eskumen-esparru ezberdinetan politika eta estrategia berritzaileak martxan jarritz, Gipuzkoa emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko lurralde gisa eraldatzeko azken helburuarekin”.

Aurre! Planak 69 ekintza bildu ditu, lau jardun-eremutan banatuta: ikerketa, prestakuntza, prebentzioa, sentsibilizazioa eta arreta. Indarkeria matxistaren aurkako borroka **jarduera sektorial edota asistentzial gisa irudikatzen duen ikuspegia gainditu nahi izan da**, bere egiturazko dimentsioa kontuan hartuta (emakumeen eta gizonen desberdintasuna egitura sozialaren eremu guztietan), eta, beraz, Berdintasunerako Foru Arauak ezarritakoari jarraiki, emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik eta zeharlerrotasunez esku hartu nahi izan da, bai Aldundia osatzen duten departamentu eta arlo guztietan, baita lurraldeko udaletan ere.

Ikuspegi horrek agerian jarri du prebentzioa, sentsibilizazioa eta arreta lan-eremu bakoitzaren ardurak eta eskumenak kontuan hartuta pentsatu eta egokitu behar direla, eta prestakuntza eta ikerketa Plana aurrera eramateko langile gaituak izateko tresna gisa kudeatu behar direla, hori baita jasangarritasuna ziurtatzeko oinarritzko bermea; baita indarkeria matxistaren errealitateari eta haren adierazpenei eta erresistentzia-moduei buruzko lurraldeko ezagutza kontrastatua edukitzeko ere.

Berdintasunerako Organoari egokitu zaio Foru Aldundian **Aurre! Plana bultzatu eta horren jarraipena** egiteko lanak garatzea, eta, beraz, foru-entitatearen zuzendaritza desberdinekin hainbat lanerako bide ezarri dira, zegozkien Aurre! Planeko ekintzak gara zitzaten.

Halaber, **Berdintasunerako Organoak berari zegozkion ekintzak eduki** ditu Aurre! Planean. Are gehiago, Berdintasunerako Organoa izan da ekintza gehien eduki dituen zuzendaritza. Ekintza horietako batzuk Aldundiaren beste zerbitzu batzuekin partekatutakoak izan dira.

Aurre! Planaren funtzioak garatzeko, Berdintasunerako Organoak indarkeria matxistaren arloan aditua den kanpoko talde tekniko baten laguntza jaso du, Aurre! Planaren sustapen-, aholkularitza, garapen- eta segimendu-prozesuan laguntza teknikoa emateko; prozesu horrek hiru urte iraun du.



Zerbitzu hori Sortzen Aholkularitza eta Elhuyar Aholkularitza erakundeen arteko lankidetzaren bidez gauzatu da.

Dokumentu hau 2019ko jardueraren nahiz Aurre! Planaren indarraldi-epearen memoria da, Plan hori sustatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko.



1.- Lanerako markoa

Berdintasunerako Foru Araua betez eta Aurre! Planean jasotakoari jarraiki, lanerako eremu hauek sortu dira:

Batzorde Estrategikoa

Berdintasunerako Foru Arauaren 52.3 artikulua dio batzorde politiko-tekniko bat sortuko dela, foru-arau horretan indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren arloan ezarritakoa betetzeko. 2015ean, Berdintasunerako Organoaren eta Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzaren arteko batzorde politiko-teknikoa eratu zen¹. 2018an bere osaera eta funtzionamendua birdefinitu egin ziren, indarkeria matxistaren aurkako foru-politika sustatzeko lanerako baldintza hobek sortzeko. Alde batetik, parte-hartze politikoa indartu egin zen eta, bestetik, lanerako guneak berrantolatu eta birplanifikatu egin ziren. Bi lanerako gune sortu ziren:

- **Batzorde Estrategikoa.** Bertan, Gizarte Politikako diputatuak eta Diputatu Nagusiaren Kabineteko ordezkariak hartzen dute parte, baita *Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimak Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuaren Zuzendaritzak* (aurrerantzean Emakumeen Babeserako Zerbitzua) eta Berdintasunerako Organoari dagokion zuzendaritzak ere.
- **Batzorde Operatiboa.** Emakumeen Babeserako Zerbitzuko eta Berdintasunerako Organoko talde teknikoaz osatutakoa, indarkeria matxistaren arloan aditua den kanpo-aholkularitzarekin batera².

Bi izan dira lan-eremu horren **helburuak**:

- **Lan-prozesuak sortzea**, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretak emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua eduki dezan.
- **Bi zerbitzuei batera garatzea dagozkien ekintzak** aurrera gauzatzea, eta Emakumeen Babeserako Zerbitzuari ekintza horiek garatzeko aholkularitza ematea.

Elkarlan horren ondorioz, **indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta-zerbitzuak ebaluatu dira (In 3.2 ekintza)**. Hasiara batean Emakumeen Babeserako Zerbitzuari zegokion arren (eta horrela zegoen planifikatuta 2018an), azkenean elkarlanean garatu da. Ekintza hori 2018an jarri da martxan, eta 2019an amaitu da.

2019an honako hauek egin dira:

- Batzorde Estrategikoaren 2 bilera.
- Batzorde Operatiboaren 4 bilera

Talde Motorra

Talde Motorra Berdintasunerako Organoaren zuzendariak, berdintasunerako teknikari batek eta indarkeria matxistaren arloan aditua den kanpo-aholkularitzako kideek osatzen dute. Oro har, bere funtzio nagusia Aurre! Planeko ekintzak nahiz sortutako lanerako guneak bultzatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea dira. Bere **bi eginkizun operatibo nagusiak hauek dira**:

- Berdintasunerako Organoak abian jarritako estrategiak definitu eta horiei jarraipena egitea, **Aldundiko gainerako zuzendaritzei** dagozkien Aurre! Planeko ekintzak bultzatzeko.

¹ Zuzendaritza horretan dago Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimak Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua, Batzorde Estrategikoan ordezkaturik dagoena, bere Zerbitzu Burutzaren bidez.

² Indarkeria matxistaren arloan aditua den kanpo-aholkularitza Sortzen Aholkularitza eta Elhuyar Aholkularitzak osatzen dute, aurrerantzean kanpo-aholkularitza.



- Aurre! Planean jasotako eta **Berdintasunerako Organoari dagozkion** ekintzen ezarpena definitzea, jarraipena egitea eta **ebaluatzea**.

2019an guztira 8 bilera egin ditu.

Ekintza garatzeko beste lantaldeak

Aurre! Planeko ekintza garatzeko, bi lantalde esanguratsu sortu dira.

- **Gazteria eta Berdintasuneko Lantaldea**

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Zerbitzuko (aurrerantzean Gazteria Zerbitzua) eta Berdintasunerako Organoko talde teknikoek osatzen dute. Aurre! Planeko In 11.5 ekintza abiaraztea izan da lantaldearen helburua³. Lantalde horretatik, gazteriako eta berdintasunerako tokiko teknikarien arteko lan-espazioa jarri da martxan, eta, bertan, gogoeta-prozesua egin da ikuspegi feministatik, haurtzaroan, familiaren eremuan, ematen den indarkeria sexista sexualari buruz.

2019an zehar Lantaldea 6 aldiz bildu da.

- **Funtzio Publikoaren eta Berdintasuneko Lantaldea**

In 8.1 ekintza garatzeko, *“Foru-administrazioaren barruan jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko protokoloa berrikustea, eta jarraipena egiteko mekanismoak abian jartzea”*, lantalde **politiko-teknikoa** sortu da, Funtzio Publikoko zuzendariak, Funtzio Publikoko zerbitzuburuak, Departamentu horretako berdintasun-unitateak eta Berdintasunerako Organoaren berdintasunerako teknikari batek osatuta. Azken honek Funtzio Publikoaren Zerbitzuari beharrezko laguntza eta aholkularitza eman dio In 8.1 ekintza garatzeko.

2019an zehar Lantaldea 4 aldiz bildu da.

Aurre! Planaren jarraipena

Azkenik, Berdintasunerako Organoak Aurre! Planaren jarraipena egin du. Horretarako, Planean ekintzak zituzten eta, aldi berean, 2019rako ekintzak planifikatu zituzten foru-departamentu guztien informazioa bildu du, eta, horrekin guztiarekin, jarraipen-memoria hau egin du.

³ Udaletako berdintasun eta gazteria zerbitzuen arteko lankidetzaren lantzea, Beldur Barik bezalako ekimenak bideratzeko.



2- Planaren garapen-maila

2.1. Aurre! Planaren aurkezpen laburra

Aurre! Planak 69 ekintza izan ditu. Hala ere, Planaren jarraipena egin eta ekintzen kontabilizazioa egiteko, beharrezkoa da zenbait ñabardura egitea, ekintza horiek nola kontatzen diren azaltzeko:

Eremuka, ekintzak honela zeuden banatuta:

| Eremua | Ekintza-kopurua | % |
|----------------------------------|-----------------|--------------|
| Ikerketa | 12 | 17.4 |
| Prestakuntza | 7 | 10.2 |
| Arreta | 23 | 33.3 |
| Prebentzioa eta sentsibilizazioa | 27 | 39.1 |
| GUZTIRA | 69 | 100.0 |

Kopuru oso horren barruan, **hiru ekintza zeuden hainbat departamenturen ardurapean.** Horrek ez du esan nahi ekintza horiek batera garatu behar zituztenik, baizik eta departamentu bakoitzak ekintza hori bere kasa garatzeko ardura zuela. Zehazki, ekintza hauez ari gara:

| | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|
| <i>In4.1. Foru Aldundiaren eskumeneko alorrei dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetzak, eta abar), zehaztuko diren berariazko azterketa lerroak garatzen hastea.</i> | Ekintza garatzea 5 zuzendaritzari dagokie |
| <i>In8.3. Protokolo aktiboak abian jarri zein horien jarraipena eta ebaluazioa sustatzea, merituak emanez edo beste bide batzuk baliatuz, lan esparruan jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari erantzuna emateko.</i> | Ekintza garatzea 3 zuzendaritzari dagokie |
| <i>In10.2. Berdintasunaren sustapena eta indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazioa bultzatzea, kulturaren alorreko diru laguntzak emateko deialdien bidez.</i> | Ekintza garatzea 2 zuzendaritzari dagokie |

Bestalde, **18 ekintza** planifikatu dira aldi berean zuzendaritza baten edo biren artean garatzeko: In1.2, In1.3, In3.5, In4.6, In5.2, In5.3, In15.5, In15.1, In14.3, In15.4, In15.2, In16.3, In16.4, In17.3.

Bi kasuetan, hau da, modu partekatuan garatu behar ziren edo zuzendaritza batek baino gehiagok egin behar izan dituzten ekintzetan, **ekintza behin bakarrik kontabilizatu da, eta portzentualki zatitu da ekintzaren ardura duten zuzendaritza-kopuruaren arabera.** Beraz, ekintza bat bere gain hartu duten zuzendaritzak bi izan badira, zuzendaritza bakoitzak ekintzaren % 50 hartu du bere gain; lau izan badira, berriz, % 25 hartu dute euren gain.



Beraz, ekintzak bi modutan kontabilizatu dira:

- **Kopuru absolutuetan egindako ekintzen kopuruaren** arabera. Zerbitzu bakoitzak planifikatu dituen ekintzak kontabilizatu dira, ekintza hori beste zerbitzu bati ere badagokion ala ez aintzat hartu gabe. Horrela, zerbitzu bakoitzak planifikatu dituen ekintzen kopurua Aurre! Planean jasotako 69 ekintzak baino gehiago dira. Izan ere, arestian aipatu bezala, zerbitzu bati baino gehiagori dagozkion ekintzak daude, eta, beraz, foru-zerbitzu bakoitzak planifikatu dituen ekintzen kopurua aintzat hartzen badugu, kopuru hori Aurre! Planeko ekintza guztiak baino handiagoa da.
- **Zerbitzu bakoitzari dagokion ehunekoa**, ekintzak zerbitzuen artean partekatu direnean, edo ekintza bat bere kasa garatzea zerbitzu bati baino gehiagori zegokion ardura izan denean. Horrela, ekintzen guztizko kopuruak ez du gaindituko Aurre! Planeko ekintza guztien kopurua (69 ekintza).
- Azkenik, eta arestian azaldutakoari jarraituz, ekintzen betetze-maila jasotzen duten tauletan, ekintzak hiru modutan adierazten dira:
 - **Ekintza propioak:** zerbitzu bakar bati dagozkion ekintzak.
 - **Ekintza partekatuak:** zerbitzu batek baino gehiagok modu independentean garatu behar izan dituzten ekintzak dira, hau da, ekintza horiek garatzeko zerbitzuen arteko elkarlana ez da beharrezkoa izan.
 - **Ekintza bateratuak:** zerbitzu bati baino gehiagori elkarrekin garatzea egokitu zaien ekintzak dira, hau da, ekintza horiek garatzeko zerbitzuen arteko elkarlana beharrezkoa izan da.

Ekintzen kontabilizazioari buruz azaldutakoari jarraiki, Aurre! Planeko ekintzak era honetan sailkatu dira departamentu eta zerbitzuka:



Aurre! Planeko ekintzak

| Departamentua | Zuzendaritza | Ekintza propioak | | Ekintza partekatueak | | Ekintza bateratuak | | GUZTIRA | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|------------------|--------------|----------------------|--------------|--------------------|--------------|-----------|--------------|
| | | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % |
| Diputatu Nagusiaren Alorra Ekintza-kopurua, guztira: 36 Egotzitako %, guztira: 26,03 | Berdintasunerako Organoa | 15 | 15,00 | | | 11 | 5,50 | 26 | 20,50 |
| | Diputatu Nagusiaren Kabinetea | | | | | 2 | 1,00 | 2 | 1,00 |
| | Kudeaketa Estrategikoa | | | 1 | 0,33 | | | 1 | 0,33 |
| | Komunikazioa | 1 | 1,00 | | | 3 | 1,50 | 4 | 2,50 |
| | Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak | 1 | 1,00 | 1 | 0,20 | | | 2 | 1,20 |
| | Hizkuntza Berdintasuna | | | 1 | 0,50 | | | 1 | 0,50 |
| Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak Ekintza-kopurua, guztira: 19,00 Egotzitako %, guztira: 14,40 | Kultura | 1 | 1,00 | 1 | 0,50 | | | 2 | 1,50 |
| | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | 6 | 6,00 | 1 | 0,20 | 3 | 0,50 | 10 | 6,70 |
| | Kirolak | 4 | 4,00 | 1 | 0,20 | | | 5 | 4,20 |
| | Lankidetzeta | 2 | 2,00 | | | | | 2 | 2,00 |
| Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Ekintza-kopurua, guztira: 7 Egotzitako %, guztira: 6 | Funtzio Publikoa | 5 | 5,00 | | | 2 | 1,00 | 7 | 6,00 |
| Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Ekintza-kopurua, guztira: 3 Egotzitako %, guztira: 1,53 | Ekonomia Sustapena | | | 1 | 0,33 | | | 1 | 0,33 |
| | Lurralde Oreka | 1 | 1,00 | 1 | 0,20 | | | 2 | 1,20 |
| Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekintza-kopurua, guztira: 3 Egotzitako %, guztira: 2,20 | Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | 2 | 2,00 | 1 | 0,20 | | | 3 | 2,20 |
| Ogasuna eta Finantzak Ekintza-kopurua, guztira: 2 Egotzitako %, guztira: 1,33 | Zerga eta Finantza Politika | 1 | 1,00 | 1 | 0,33 | | | 2 | 1,33 |
| Gizarte Politika Ekintza-kopurua, guztira: 26 Egotzitako %, guztira: 17,50 | Haurren Babesa | 2 | 2,00 | | | 3 | 1,50 | 5 | 3,50 |
| | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | 7 | 7,00 | | | 14 | 7,00 | 21 | 14,00 |
| GUZTIRA | | 48 | 48,00 | 10 | 3,00 | 38 | 18,00 | 96 | 69,00 |



2.2.- 2019an planifikatutako ekintzen garapen-maila

2019rako planifikazio hau egin zen:

- Zerbitzu bakoitzari zegozkion **50 ekintza propio** (ez partekatuak, ez bateratuak).
- **10 ekintza partekatu**, zerbitzu bakoitzerako banaketa-portzentajea aplikatuta, 2,99 ekintza batzen dituztenak.
- Eta **beste 26 ekintza bateratu**, zerbitzuei dagozkien portzentajeak kontabilizatuta 13,50 ekintza batzen dituztenak.

Aurre! Planean 2019an aurreikusitako ekintzak, beraz, guztira 88 izan ziren ekintza-kopuruari dagokionez, eta 67,49 esleitutako portzentajearen pisuari dagokionez.

Ekintza-kopuruaren zenbaketa horretan, bi ekintza daude zuzendaritzen ekimenez txertatu direnak, eta taularen azken zutabearen jasota daudenak. Kirol Zerbitzuak eta Emakumeen Babeserako Zuzendaritzak gehitutako ekintzak dira, eta Aurre! Planaren In9 eta In14 helburuekin lotu dira.

2019an Aurre! Planean planifikatutako ekintza guztiek, **foru-erakundearen 7 departamentu eta 17 zuzendaritza** inplikatu dituzte.



| Departamentua | Zuzendaritza | Ekintza propioak | | Ekintza partekatua | | Ekintza bateratuak | | Ekintza berriak | | GUZTIRA | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|--------------|--------------------|--------------|--------------------|--------------|-----------------|--------------|-----------|--------------|
| | | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % | Kop. | Egotzitako % |
| Diputatu Nagusiaren Alorra Kopurua, guztira: 33 Egotzitako %, guztira: 24,03 | Berdintasunerako Organoa | 14 | 14,00 | | | 9 | 4,50 | | | 23 | 18,50 |
| | Komunikazioa | 1 | 1,00 | | | 3 | 1,50 | | | 4 | 2,50 |
| | Diputatu Nagusiaren Kabinetea | | | | | 2 | 1,00 | | | 2 | 1,00 |
| | Bizikidetza eta Giza Eskubideak | 1 | 1,00 | 1 | 0,20 | | | | | 2 | 1,20 |
| | Hizkuntza Berdintasuna | | | 1 | 0,50 | | | | | 1 | 0,50 |
| | Kudeaketa Estrategikoa | | | 1 | 0,33 | | | | | 1 | 0,33 |
| Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak Kopurua, guztira: 18 Egotzitako %, guztira: 15,40 | Kultura | 1 | 1,00 | 1 | 0,50 | | | | | 2 | 1,50 |
| | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | 6 | 6,00 | 1 | 0,20 | 1 | 0,50 | | | 8 | 6,70 |
| | Kirolak | 4 | 4,00 | 1 | 0,20 | | | 1 | 1,00 | 6 | 5,20 |
| | Lankidetzak | 2 | 2,00 | | | | | | | 2 | 2,00 |
| Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Kopurua, guztira: 7 Egotzitako %, guztira: 6,00 | Funtzio Publikoa | 5 | 5,00 | | | 2 | 1,00 | | | 7 | 6,00 |
| | Ekonomia Sustapena | | | 1 | 0,33 | | | | | 1 | 0,33 |
| Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Kopurua, guztira: 3 Egotzitako %, guztira: 1,53 | Lurralde Oreka | 1 | 1,00 | 1 | 0,20 | | | | | 2 | 1,20 |
| | Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa | | | 1 | 0,20 | | | | | 3 | 2,20 |
| Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Kopurua, guztira: 3 Egotzitako %, guztira: 2,20 | Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | 2 | 2,00 | 1 | 0,20 | | | | | 3 | 2,20 |
| | Ogasuna eta Finantzak Kopurua, guztira: 2 Egotzitako %, guztira: 1,33 | Zerga eta Finantza Politika | 1 | 1,00 | 1 | 0,33 | | | | | 2 |
| Gizarte Politika Kopurua, guztira: 22 Egotzitako %, guztira: 17,00 | Haurren Babesa | 4 | 4,00 | | | | | | | 4 | 4,00 |
| | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | 7 | 7,00 | | | 10 | 5,00 | 1 | 1,00 | 18 | 13,00 |
| GUZTIRA | | 49 | 49,00 | 10 | 2,99 | 27 | 13,50 | 2 | 2,00 | 88 | 67,49 |



Ebaluazio honi begira, zuzendaritza bakoitzak ekitaldiaren amaieran, **zegozkion ekintzen egoerari buruzko informazioa** helarazi du, eta ekintza horietako bakoitzaren egoera adierazi du:


- Bukatua (ekitaldi horretarako planifikatutako garapen-mailaren arabera).
- Hasita, bukatu gabe.
- Hasteke.

Ekintza “hasteke” dagoela adierazten den kasuetan, zergatiari buruz galdetzen da.

2019an planifikatutako ekintzei dagokienez, ekintzen betetze- eta garapen-maila hau da:

- 2019an planifikatutako ekintzen ia bi heren aurreikusitakoaren arabera gauzatu dira (% 66).
- Planifikatutakoaren arabera, 2019an egin diren ekintzei martxan jarri diren baina amaitzeke dauden ekintzak gehitzen badizkiegu, 2019rako planifikatutako ekintzen **% 95 osatzen dute**.

Beraz, esan daiteke 2019rako aurreikusitako **ekintzen betetze-maila oso handia** izan dela.





Departamentuen eta zerbitzuen arabera, ekintzen garapen-maila honako hau da:

| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoen % | Bukatutakoen, eta hasitakoen baina bukatu gabekoen batura % |
|-------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Diputatu Nagusiaren Alorra Ekintzak, guztira: 33 Egotzitako %, guztira: 24,03 | Berdintasunerako Organoa | 23 | 18,50 | 73,91 | 100,00 |
| | Komunikazioa | 4 | 2,50 | 100,00 | 100,00 |
| | Diputatu Nagusiaren Kabinetea | 2 | 1,00 | 100,00 | 100,00 |
| | Bizikidetza eta Giza Eskubideak | 2 | 1,20 | 100,00 | 100,00 |
| | Hizkuntza Berdintasuna | 1 | 0,50 | 100,00 | 100,00 |
| | Kudeaketa Estrategia | 1 | 0,33 | 100,00 | 100,00 |
| | | 33 | 24,03 | 89,47* | 100* |

*Planifikatutako ekintzen % 89 amaitu da, eta amaitutako ekintzei amaitu gabeko ekintzak gehitzen bazaizkie, planifikatutako guztiaren % **100 lortzen da**.

| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoen % | Bukatutakoen, eta hasitakoen baina bukatu gabekoen batura % |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak Ekintzak, guztira: 18,00 Egotzitako %, guztira: 15,40 | Kultura | 2 | 1,50 | 0,00 | 100,00 |
| | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | 8 | 6,70 | 75,00 | 75,00 |
| | Kirolak | 6 | 5,20 | 33,33 | 100,00 |
| | Lankidetzak | 2 | 2,00 | 50,00 | 100,00 |
| | | 18,00 | 15,40 | 50,00* | 88,89* |

*Planifikatutako ekintzen % 50 amaitu da, eta amaitutako ekintzei amaitu gabeko ekintzak gehitzen bazaizkie, planifikatutako guztiaren % **89 lortzen da**.

| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoen % | Bukatutakoen, eta hasitakoen baina bukatu gabekoen batura % |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Ekintzak, guztira: 7 Egotzitako %, guztira: 6,00 | Funtzio Publikoa | 7 | 6,00 | 71,43 | 100,00 |

Gobernantzaren eta Gizartearekiko Komunikazioaren Departamentuak planifikatutako ekintzen % 71 amaitu du, eta planifikatutako ekintzen % **100era iritsi da**, amaitu gabe baina hasita daudenak batzen baditugu.



| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoek % | Bukatutakoek, eta hasitakoek baina bukatu gabekoek batura % |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Ekintzak, guztira: 3 Egotzitako %, guztira: 1,53 | Ekonomia Sustapena | 1 | 0,33 | 0,00 | 0,00 |
| | Lurralde Oreka | 2 | 1,20 | 100,00 | 100,00 |
| | | 3 | 1,53 | 66,67* | 66,67* |

*Planifikatutako ekintzen % **67 amaitu da**, eta amaitutako ekintzei amaitu gabeko ekintzak gehitzen bazaizkie, ehuneko bera lortzen da.

| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoek % | Bukatutakoek, eta hasitakoek baina bukatu gabekoek batura % |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekintzak, guztira: 3 Egotzitako %, guztira: 2,20 | Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | 3 | 2,20 | 66,67 | 100,00 |

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak planifikatutako ekintzen % 67 amaitu du, eta planifikatutako ekintzen % **100era iritsi da**, bukatu gabe dauden hasitakoak batzen baditugu.

| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoek % | Bukatutakoek, eta hasitakoek baina bukatu gabekoek batura % |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Ogasuna eta Finantzak Ekintzak, guztira: 2 Egotzitako %, guztira: 1,33 | Zerga eta Finantza Politika | 2 | 1,33 | 50,00 | 50,00 |

Ogasuna eta Finantza Departamentuak planifikatutako ekintzen % **50 amaitu du**, eta planifikatutako ekintzen ehuneko bera lortu du, amaitu gabe hasitako ekintzak batzen baditugu.

| Departamentua | Zerbitzuak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Egotzitako % | Bukatutakoek % | Bukatutakoek, eta hasitakoek baina bukatu gabekoek batura % |
|----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|--------------|----------------|-------------------------------------------------------------|
| Gizarte Politika Ekintzak, guztira: 22 Egotzitako %, guztira: 17,00 | Haurren Babesa | 4 | 4,00 | 0,00 | 100,00 |
| | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | 18,00 | 13,00 | 72,20 | 100,00 |
| | | 22 | 17,00 | 59,09* | 100,00* |

*Azkenik, Gizarte Politiken Departamentuak planifikatutako ekintzen % 59 amaitu du. Horiei hasita baina eta bukatzeke daudenak gehitzen badizkiegu, % **100eko** portzentajea lortuko dugu.

Grafikoan ikus daitekeenez, **2019rako planifikatutako ekintza guztien artean, egiteke geratu**



diren ekintzak % 5 dira. Zenbaki absolutuetan, 4 ekintzez ari gara, eta esleitutako ehunekoa planifikatutako ekintzen % 1,86 da.

Zerbitzuei ekintza horiek ez garatzeko arrazoiei buruz galdetuta, hauek izan dira erantzunak:

| Ekintzak ez garatzeko arrazoiak | Ekintza-kopurua |
|-------------------------------------------------------------------------|-----------------|
| Ekintza hori integratuko duen estrategia zabalagoa diseinatzen ari dira | 0,33 |
| ED/EDE | 1,53 |
| GUZTIRA | 1,86 |

2.3. 2019rako planifikatutako ekintzen garapen-maila

Atal honetan **Aurre! Planean 2019rako planifikatutako ekintzen** egoera jaso dugu, (ekintzaren edukiaren xehetasunekin), departamentuaren eta jarduera gauzatzeko ardura duen zerbitzuaren arabera. Ekintzaren garapen-maila hiru kategoriatan antolatu da:

- **Bukatutako ekintza:** planifikatutakoaren arabera garatu den ekintza.
- **Hasita baina bukatu gabe dagoen ekintza:** ekintza garatzen hasi da, baina planifikatutako guttia ez da garatu.
- **Hasi gabeko ekintza:** planifikatutako ekintzak dira, baina azkenean garatu ez direnak. Kasu horietan, ekintza zergatik ez den garatu jaso dugu era laburrean.


Era berean, Planari lotutako kostuak erantsi dira departamentu bakoitzean. Midenet tresna informatikoan jasotzen dira (Foru Aldundiaren plan estrategikoaren eta gainerako planen jarraipenerako tresna da). Tresna hori **hastapenetan dago oraindik**, datozen urteetarako hobekuntzak antzemateko eta ezartzeko fasean; ondorioz, item batzuetan eskuratutako emaitzak gutxi gorabeherakoak dira.



Diputatu Nagusiaren Alorra

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen aurrekontua, guztira |
|----------------------------|------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| • 33 ekintza | • Bukatuta: 27 ekintza • Hasita, bukatu gabe: 6 ekintza | • 2019: 588.412 € |

Ekintza-kopurua: 33





Berdintasunerako Organoa

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In1.5 | Urtero prestakuntzako lurralde plan bat egitea berdintasuneko eta indarkeria sexistaren prebentzioari buruzko ikastaroak eginez, indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateaz arduratzen diren udal langileei zuzendua berariaz. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In3.1 | Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Think Tank bat abian jartzea eragile estrategikoekin (elkarteak, unibertsitatea, erakundeetako arduradunak, adituak), hausnarketa partekatua egiteko, balizko ikerketa lerroak identifikatzeko, eta indarkeria matxistaren zergatiak, agerpenak eta emakume biktimen arreta hobeto ezagutzeko. Etorkizunari begira, gaiaren inguruko kluster modura eratu dadin. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In3.2 | Indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko zerbitzuen jarraipenaren eta ebaluazioaren azterlan bat egitea. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Bukatuta | |
| In3.3 | Indarkeria matxistaren biktimek jasaten duten eskubi-deen urraketa aitortzeko, ordaina eskaintzeko eta urratutako eskubideak leheneratzeko ekimenak diseinatzea eta abian jartzea. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In4.7 | Gizonezkoei zuzendutako indarkeriaren prebentzio estrategiei buruzko ikerketa egitea. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In5.1 | Gizartea sentsibilizatzeko ekintzak egitea, hausnarketa, eztabaida eta jabetzea sortzen dituztenak genero ezberdintasunei eta indarkeria sexistari dagokienez. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Bukatuta | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In7.1 | Indarrean dauden elkarrizketa-bideak erabiltzea, sendotzea eta, egokia bada, bide berri batzuk sortzea, emakumeen elkarteak indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko foru baliabideei buruz informatu-ta manten daitezen, prebenitu, hauteman, lagundu eta bideratzeko funtsezko eragileak izan daitezkeen neurrian. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In7.3 | Lurraldeko elkarte feministei eta emakumeen elkarteei zuzendutako diru laguntzen esparruan berariazko ildo bat ezartzea emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko proiektu berritzaileak babestearren. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In8.2 | Lurralde mailako protokolo eredu bat sortzea tokiko administrazioan jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In11.5 | Udaletako berdintasuneko eta gazteriako zerbitzuen arteko lankidetzaz lantzea Beldur Barik bezalako ekimenak bideratu ahal izateko. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Bukatuta | |
| In11.6 | Berdinbidean programa indartzea, udal txikiek baliabide gehiago izan ditzaten landa eremuko gazteen artean berdintasuneko balioak eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In13.1 | Indarkeria matxistari aurre egiteko foru politika koordinatzeko batzorde politiko-teknikoa abian jarri eta bere eginkizunetan indartzea. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In13.2 | Batzorde politiko-teknikoa berdintasunean eta indarkeria sexistan espezializatutako laguntza teknikoaz hornitzea, aholkua eman eta burutzen den lanaren jarraipena eta sistematizazioa egin ditzan. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In14.3 | Proiektu pilotu bat garatzea indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeekin berariaz lan egiten duten elkarteekin, emakumeen norberaren eta taldekako ahalduntzea hobetearren, beren autonomia pertsonala erreparatzeko eta berrezartzeko esparruan. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |
| In15.1 | Udalerrietako berdintasun ataleko eta gizarte zerbitzuetako langileen artean elkarlanerako espazio bat sortzea , elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko, zerbitzuari buruzko informazioa eguneratze aldera, eta indarkeria sexistaren egoerei arreta emateko lan-ere-du bat, emakumeak ahalduntzen lagundu eta beren bizitza era autonomoan gobernatzeko gaitzen dituen, adostera begira. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |
| In15.2 | Lurralde mailan erakundeen arteko koordinaziorako protokolo eredu harmonizatu eta estandarizatu bat sortzea, indarkeria sexistaren biktimen arreta hobetzea bermatuko duena. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |
| In15.3 | Berdinsarean -indarkeriaren alorreko berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea- egiten den lana koordinatzea eta indartzea , eragina duelarik Gipuzkoako toki administrazioan. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In16.2 | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean era aktiboan parte hartzea (alderdi politikotik zein teknikotik), Emakundek koordinatuta, eta baita aipatutako institutuak sustatzen dituen erakunde arteko beste koordinaziogune batzuetan ere. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In16.3 | Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioan lurraldeko jarraipen batzorde bat sortzea bultzatzea, alderdi politikitik zein teknikitik. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Bukatuta | |
| In 16.4 | Emakunderekin lankidetzan aritzea indarkeria sexistaren emakume biktimen arretarako gutxieneko estandarrak bateratzeko NBERen jarraibideak kontuan hartuta. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Bukatuta | |
| In16.5 | Emakundek eta Eudelek sustatuta, <i>Berdinsarea</i> , Berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako euskal udalerrien sarearekin lankidetzan aritzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Bukatuta | |
| In17.2 | Sakontasunez ezagutzea Gipuzkoan garatzeko moduko erreferentzia puntua izan daitekeen jardunbide onen bat. | Berdintasunerako Organoa | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In17.3 | Egokia bada, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei foru arreta emateko alorrean esperientzia pilotu bat diseinatu, abian jarri eta sistematizatzea. | Berdintasunerako Organoa | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |



Komunikazioa

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In5.1 | Gizartea sentsibilizatzeko ekintzak egitea, hausnarketa, eztabaida eta jabetzea sortzen dituztenak genero ezberdintasunei eta indarkeria sexistari dagokienez. | Komunikazioa | % 50 | Bukatuta | |
| In5.2 | Emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurkako mezu instituzionalak maila gorenean sendotzea, bai diskurtsoari eta sinboloei dagokienez, bai alderdi betearazleari dagokionez, eta mezu horien jarraitutasuna bermatzea, indarkeria sexistaren kasu larrienez harago. | Komunikazioa | % 50 | Bukatuta | |
| In5.3 | Indarkeria matxistaren biktimek bizirauteko eta aurrera ateratzeko egiten duten borroka aitortzeko eta ordaina eskaintzeko ekintzak egitea. | Komunikazioa | % 50 | Bukatuta | |
| In6.1 | GFaren Estilo Liburuan foru jarraibideak sartzea komunikazio kanal guztiei zuzendutako estereotipo sexistak errepikatzen dituen hizkera saihesteko, kontuan hartuta EAE mailako orientazio orokorrak. | Komunikazioa | % 100 | Bukatuta | |



Diputatu Nagusiaren Kabinetea

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In5.2 | Emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurkako mezu instituzionalak maila gorenean sendotzea, bai diskurtsoari eta sinboloei dagokienez, bai alderdi betearazleari dagokionez, eta mezu horien jarraitutasuna bermatzea, indarkeria sexistaren kasu larrienez harago. | Diputatu Nagusiaren Kabinetea | % 50 | Bukatuta | |
| In5.3 | Indarkeria matxistaren biktimek bizirauteko eta aurrera ateratzeko egiten duten borroka aitortzeko eta ordaina eskaintzeko ekintzak egitea. | Diputatu Nagusiaren Kabinetea | % 50 | Bukatuta | |



Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In4.1 | Foru Aldundiaren eskumeneko alorrei dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetzeta, eta abar), zehaztuko diren berariazko azterketa lerroak garatzen hastea. | Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak | % 20 | Bukatuta | |
| In12.1 | Aniztasun Planean sartzea LGTBI kolektiboaren aurkako diskriminazioaren eta indarkeria matxistaren inguruko sustapena eta sentsibilizazioa. | Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak | % 100 | Bukatuta | |



Hizkuntza Berdintasuna

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In 10.2 | Berdintasunaren sustapena eta indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazioa bultzatzea, kulturaren alorreko diru laguntzak emateko deialdien bidez. | Hizkuntza Berdintasuna | % 50 | Bukatuta | |

Kudeaketa Estrategia


| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In8.3 | Protokolo aktiboak abian jarri zein horien jarraipena eta ebaluazioa sustatzea, merituak emanez edo beste bide batzuk baliatuz, lan esparruan jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari erantzuna emateko. | Kudeaketa Estrategia | % 33,33 | Bukatuta | |



Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen aurrekontua, guztira |
|----------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| • 18 ekintza | • Bukatuta: 9 ekintza • Hasita, bukatu gabe: 7 ekintza • Hasteke: 2 ekintza | • 2019: 1.724.796 € |

Ekintza-kopurua: 18





Kultura

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In10.1 | Indarkeria sexistari aurre egiteko edukiak sartzea, Foru Aldundiaren ekipamenduen (KMK) eta kultura programazioen bidez. | Kultura | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In10.2 | Berdintasunaren sustapena eta indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazioa bultzatzea, kulturaren alorreko diru laguntzak emateko deialdien bidez. | Kultura | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |

Haurrak, Nerabeak eta Gazteria

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In4.1 | Foru Aldundiaren eskumeneko alorrei dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetzeta, eta abar), zehaztuko diren berriazko azterketa larroak garatzen hastea. | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 20 | Ez da egin | |
| In11.1 | Foru Aldundiak sustatzen dituen udalekuetan (udalekuak eta gazte oporraldiak) , berdintasunarekin eta indarkeria sexistarekin zerikusia duten jarduerak gehitzea. | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 100 | Bukatuta | |
| In11.2 | Berdintasun klausulak gehitzea, bereziki kaudimen tekniko eta gauzatzeko baldintzei buruzkoak, Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuak kudeatzen dituzten erakundeekin sinatzen diren kontratuetan . | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 100 | Bukatuta | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In11.3 | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta indarkeria sexistaren prebentzioa lanerako ildo estrategiko bezala gehitzea Lurraldearen eremuan udalekin antolatzen den lan programan (gaztegunekak, ludotekak,...). | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 100 | Bukatuta | |
| In11.4 | “ Gipuzkoan gazte ” ataria eta beste bitarteko batzuk, hala nola, autobus publikoen pantailak, era aktiboan erabiltzea berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako balioak eta gazte jendearen ereduak sustatzeko . | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 100 | Bukatuta | |
| In11.5 | Udaletako berdintasuneko eta gazteriako zerbitzuen arteko lankidetzat lantzea Beldur Barik bezalako ekimenak bideratu ahal izateko. | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 50 | Bukatuta | |
| In11.7 | Beldur Barik programaren esparruan, indarkeria matxista prebenitzeko gazte jendearekin proiektu pilotu bat diseinatu, abian jarri eta sistematizatzea Gipuzkoako udalerri batean (Beldur Barik erakundearen arteko programarekin koordinatuta), produktu ukigarri eta hedagarria sortu eta gerora beste udalerri batzuetan abian jar daitekeena. | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 100 | Ez da egin | |
| In14.5 | Foru Aldundiak sustatutako udalekuetako (udalekuak eta gazte oporraldiak) hezitzaile taldeen esku jarduera protokolo bat eta bitartekoak jartzea, gerta daitezkeen indarkeria matxistako kasuetan esku hartzeko. | Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | % 100 | Bukatuta | |



Kirolak

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|---------------------------------------------------------------------|
| In4.1 | Foru Aldundiaren eskumeneko alorre dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetzeta, eta abar), zehaztuko diren berariazko azterketa lerroak garatzen hastea. | Kirolak | % 20 | Hasita, bukatu gabe | |
| In9.1 | Berdintasunean sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak antolatzea, Gipuzkoan eskola kirolarekin konprometitutako langileei eta gurasoei zuzenduta. | Kirolak | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In9.2 | Berdintasun klausulak gehitzea eta gero aztertzea, bereziki kaudimen teknikoari eta gauzatzeko baldintzei buruzkoak, lurraldean kirol praktika sustatzeko dirulaguntzen deialdietan eta sinatzen diren kontratuetan. | Kirolak | % 100 | Hasita, bukatu gabe | Klausula batzuk gehitu dira, baina oraindik ez da hausnarketa egin. |
| In9.4 | Sentsibilizatzeko kanpaina efikaz eta eraginkorrak egitea, berdintasunezko eta indarkeria sexistarik gabeko kirol praktika sustatzeko. | Kirolak | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In9.5 | Berariazko programak abian jartzea, kirolean genero estereotipoak gainditu eta neskak arlo horretan ahalduntzeko. | Kirolak | % 100 | Bukatuta | |
| | Zerbitzuak gehitutakoa: prestakuntza-programen garapenean genero-ikuspegia txertatzea. | Kirolak | % 100 | Bukatuta | |



Lankidetza


| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In4.2 | Indarkeria arriskuaren adierazleak dituen “ alerta sistema bat ” prestatzea, bultzatzen diren lankidetza proiektuen arrakasta hobetzeko. | Lankidetza | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In9.3 | Berdintasun klausulak gehitzea, bereziki kaudimen teknikoari eta emakumeen nahiz LGTBI kolektiboen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioari buruzkoak, gauzatzeko baldintzetan, diru laguntza deialdietan eta lankidetza arloan sinatzen diren kontratuetan. | Lankidetza | % 100 | Bukatuta | |



Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen aurrekontua, guztira |
|----------------------------|-----------------------------------------------------------|-------------------------------|
| • 7 ekintza | • Bukatuta: 5 ekintza • Hasita, bukatu gabe: 2 ekintza | • 2019: 730 |

Ekintza-kopurua: 7





Funtzio Publikoa

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In1.1 | Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko berriazko ikastaroak sartzea departamentuetako prestakuntza-planean. | Funtzio Publikoa | % 100 | Bukatuta | |
| In1.2 | Prestakuntza-ekintzako prozesu bat abian jartzea, gizarte larrialdietako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokako ataleko langile teknikoei zuzenduta, emakumeei ahalduntzearen ikuspegitik ematen zaien arreta hobetzerren. | Funtzio Publikoa | % 50 | Bukatuta | |
| In1.3 | Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloan prestakuntza plan bat abian jartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko foru zerbitzuetan lan egiten duten langileei zuzenduta, interseksionalitatearen ikuspegia eta era askotako kolektiboekin esku hartzeko moduak gehituz. | Funtzio Publikoa | % 50 | Bukatuta | |
| In2.1 | Urteko prestakuntzako foru planean gehitzea berdintasunari eta indarkeria sexistaren prebentzioari buruzko berriazko ikastaroak, parte hartzen duten ataletako langileei berriaz zuzenduta. | Funtzio Publikoa | % 100 | Bukatuta | |
| In2.2 | Konprometitutako foru langileek berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko prestakuntza ekintzetan parte har dezaten sustatu eta bultzatzea. | Funtzio Publikoa | % 100 | Bukatuta | |




| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In8.1 | Foru administrazioaren barruan jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko protokoloa berrikustea, eta jarraipena egiteko mekanismoak abian jartzea . GFA partaide den enpresa publikoei laguntza ematea lan esparruko jazarpen sexista eta sexu jazarpena prebenitzeko eta arazoari aurre egiteko protokoloak sortu eta abian jar ditzaten. | Funtzio Publikoa | %100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In8.4 | Genero indarkeriaren biktima diren GFAko langileen kasuan jarraitu beharreko barne-prozedurak diseinatzea. | Funtzio Publikoa | %100 | Hasita, bukatu gabe | |



Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen Gastua |
|----------------------------|---------------------------------------------|---------------------|
| •3 ekintza | •Bukatuta: 2 ekintza •Hasteke: ekintza 1 | •2019: Daturik gabe |

Ekintza-kopurua: 3





Ekonomia Sustapena

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| In8.3 | Protokolo aktiboak abian jarri zein horien jarraipena eta ebaluazioa sustatzea, meritua emanaz edo beste bide batzuk baliatuz, lan esparruan jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari erantzuna emateko. | Ekonomia Sustapena | % 33,33 | Ez da egin | Alderdi hori integratuko duen estrategia zabalagoa diseinatzen ari dira, baina legegintza-egutegiak ez du horretarako aukerarik eman. 2020ko aurrekontu-ekitaldirako aurreikusi dute. |

Lurralde Oreka


| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In4.1 | Foru Aldundiaren eskumeneko alorrei dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetzeta, eta abar), zehaztuko diren berariazko azterketa larroak garatzen hastea. | Lurralde Oreka | % 20 | Bukatuta | |
| In12.2 | Landa eremuko udalerrietan haur eta gazteei zuzendu-tako ekimenak abian jartzen laguntzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako balioak sustatzeko. | Lurralde Oreka | % 100 | Bukatuta | |



Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen aurrekontua, guztira |
|----------------------------|---------------------------------------------------------|-------------------------------|
| •3 ekintza | •Bukatuta: 2 ekintza •Hasita, bukatu gabe: ekintza 1 | •2019: Daturik gabe |

Ekintza-kopurua: 3





Mugikortasuna eta Garraio Publikoa


| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|--------------------|---------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| In4.1 | Foru Aldundiaren eskumeneko alorrei dagokienez (gazteria, mugikortasuna, lurralde oreka, giza eskubideak eta bizikidetzak, eta abar), zehaztuko diren berariazko azterketa lerroak garatzen hastea. | Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | % 20 | Bukatuta | |
| In4.4 | Emakumeek foru eskumenekoa den espazio publikoan (<i>Lurraldebus</i> autobusak, geltokien kokalekua, bidegorriak, etab.) segurtasunik ezaz eta ahultasunaz duten pertzepzio subjektiboa aztertzea. | Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | % 100 | Hasita, bukatu gabe | Urtero bi inkesta egiten ditugu: bata <i>Lurraldebus</i> eko erabiltzaileentzat eta bestea bidegorriak erabiltzen dituztenentzat. Bestalde, <i>Lurraldebus</i> eko Arreta Zerbitzuan jasotzen ditugun iradokizunak kontuan hartzen dira segurtasuna eta ahultasunaren pertzepzioa baloratzeko ere. |
| In4.5 | Bidegorrietan generoaren ikuspegia sartzeko hartu diren neurrien eraginaren ebaluazioa egitea. | Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | % 100 | Bukatuta | |



Ogasuna eta Finantzak

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen aurrekontua, guztira |
|----------------------------|---------------------------------------------|-------------------------------|
| •2 ekintza | •Bukatuta: ekintza 1 •Hasteke: ekintza 1 | •2019: 5.195 € |

Ekintza-kopurua: 2





Zerga eta Finantza Politika


| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|--------------------|---------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| In3.4 | Lan alorreko jazarpen sexistari eta sexu jazarpenari erantzuteko protokolo aktiboak ezartzea sustatzearen, ezar daitezkeen neurri fiskalak aztertzea. | Zerga eta Finantza Politika | % 100 | Bukatuta | |
| In8.3 | Protokolo aktiboak abian jarri zein horien jarraipena eta ebaluazioa sustatzea, merituak emanez edo beste bide batzuk baliatuz, lan-esparruan jazarpen sexistari eta sexu-jazarpenari erantzuna emateko. | Zerga eta Finantza Politika | % 33,33 | Ez da egin | In3.4 ekintzaren esparruan egindako ikerketak ez zuen gomendatzen zergen eremuan horrelako neurriak sartzea. |



Gizarte Politika

| Garatutako ekintza-kopurua | Ekintzen garapen-maila | Ekintzen aurrekontua, guztira |
|----------------------------|----------------------------------------------------------|-------------------------------|
| •22 ekintza | •Bukatuta: 13 ekintza •Hasita, bukatu gabe: 9 ekintza | •2019: 2.866.747 € |

Ekintza-kopurua: 22





Haurren Babesa

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|---------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| In4.3 | Haurren babeseke foru zerbitzuek artatzen dituzten haur eta nerabeengan indarkeriak duen eraginari buruzko diagnostikoa egitea. | Haurren Babesa | % 100 | Hasita, bukatu gabe | Aurreikusitako ekintzak behar bezala gauzatzeko behar diren oinarriak ezartzen saiatu gara. 2019an Indarkeria Matxistaren Emakume Biktime Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuarekin lan egin da, bi zerbitzuen arteko harremanak sendotzeko. Horrek esan nahi du gogoeta komunak egin direla, prestakuntza-saioak egin direla, lantalde bat sortu dela bien arteko lan-prozedurak definitu eta doitzeko. Lehenengo aldiz, bi zerbitzuetako teknikariek kasu zehatzen balorazioa eta esku-hartzea egin dute. |
| In13.3 | Haurren babesgabeziaren balorazioetan indarkeria sexista hautemateko protokoloak indartzea. | Haurren Babesa | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| In13.4 | Haurren eta Nerabeen Babeseke Zerbitzuaren (HBSA bereziki) eta Gizarte Larrialdiko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktime Arretako Atalaren artean batera esku hartzeko prozedurak indartzea. | Haurren Babesa | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |
| In14.2 | Indarkeria sexistaren emakume biktimeen seme-alabek esku hartze planean bere beharren berariazko balorazioa modu sistematiko eta egituratuan jasota izango dutela bermatzea. | Haurren Babesa | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |



Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua

| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------|---------------|-----------------------------|
| In1.2 | Prestakuntza-ekintzako prozesu bat abian jartzea, gizarte larrialdietako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokako ataleko langile teknikoei zuzenduta, emakumeei ahalduntzearen ikuspegitik ematen zaien arreta hobetzearen. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Bukatuta | |
| In1.3 | Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloan prestakuntza plan bat abian jartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emate-ko foru-zerbitzuetan lan egiten duten langileei zuzenduta, interseksionalitatearen ikuspegia eta era askotako kolektiboekin esku hartzeko moduak gehituz. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Bukatuta | |
| In1.4 | Berdintasun-klausulak gehitzea, bereziki kaudimen teknikoari eta gauzatzeko baldintzei buruzkoak, indarkeria sexistaren biktimei arreta ematen dieten foru zerbitzuak zuzenean ematen dituzten erakundeekin sinatzen diren kontratuetan , eta horien jarraipena egitea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Bukatuta | |
| In3.2 | Indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko zerbitzuen jarraipenaren eta ebaluazioaren azterlan bat egitea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Bukatuta | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In3.5 | Indarkeria sexista baloratzeko tresnekin loturiko jardunbide egokiak identifikatzea, EAEn indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen arreta hobetzeko erakundearteko koordinazioaren barruan, eta bereziki Emakunderekin lankidetzan. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Bukatuta | |
| In13.4 | Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren (HBSA bereziki) eta Gizarte Larrialdiko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Atalaren artean batera esku hartzeko prozedurak indartzea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Bukatuta | |
| In14.1 | Indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeei arreta emateko foru-zerbitzuen urteko jarraipena egitea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Bukatuta | |
| In14.3 | Proiektu pilotu bat garatzea indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeekin berariaz lan egiten duten elkarteekin, emakumeen norberaren eta taldekako ahalduntzea hobetzearen, beren autonomia pertsonala erreparatzeko eta berrezartzeko esparruan. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In14.4 | Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei arreta emateko zerbitzuetan ahulenak diren taldeak eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeak kontuan hartzen dituzten neurriak hartzea, kontuan hartuta Gipuzkoako Gizarteratze Plana 2016-2020 Elkar-EKIN. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Bukatuta | |
| In14.6 | Indarkeria matxistaren prebentzioan eta horren aurreko sentsibilizazioan lan egiten duten beste foru departamentu eta eragile batzuekin elkarlanean aritzea, hauteman ditzaketen arreta-beharrei erantzuna eman ahal izateko. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Bukatuta | |
| In14.7 | Gainerako lurraldeekin eta Emakunderekin batera aztertzea eta baloratzea beharrezkoa ote den indarkeria sexistaren biktimei zuzendutako telefono bidezko arreta-zerbitzua lan-alorreko jazarpen sexistaren biktimei ere zabaltzea, edo, ez dagoen kasuan, sortzea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Hasita, bukatu gabe | |
| | Zerbitzuak gehitutakoa: indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta eraginkor eta ahalduntzea sustatuko duena bermatzea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | | Bukatuta | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In15.1 | Udalerrietako berdintasun ataleko eta gizarte zerbitzuetako langileen artean elkarlanerako espazio bat sortzea , elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko, zerbitzuari buruzko informazioa eguneratze aldera, eta indarkeria sexistaren egoerei arreta emateko lan-ere-du bat, emakumeak ahalduz lagundu eta beren bizitza era autonomoan gobernatzeko gaitzen dituen, adostera begira. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktime Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |
| In15.2 | Lurralde-mailan erakundeen arteko koordinaziorako protokolo-eredu harmonizatu eta estandarizatu bat sortzea, indarkeria sexistaren biktimeen arreta hobetzea bermatuko duena. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktime Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |
| In16.1 | Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioan sortu den jarraipen batzordean era aktiboan parte hartzea, alderdi politikotik zein teknikitik, Emakundek koordinatuta. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktime Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 100 | Bukatuta | |
| In16.3 | Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioan lurraldeko jarraipen batzorde bat sortzea bultzatzea, alderdi politikotik zein teknikitik. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktime Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |



| Ekintza | Ekintzaren testua | Zerbitzu arduraduna | Erantzukizunaren % | Garapen-maila | Zergatik ez da egin/amaitu? |
|---------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------|---------------------|-----------------------------|
| In16.4 | Emakunderekin lankidetzan aritzea indarkeria sexistaren emakume biktimen arretarako gutxieneko estandarrak bateratzeko NBEren jarraibideak kontuan hartuta. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Bukatuta | |
| In17.3 | Egokia bada, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei foru arreta emateko alorrean esperientzia pilotu bat diseinatu, abian jarri eta sistematizatzea. | Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | % 50 | Hasita, bukatu gabe | |



2.4. 2019an egindako gastu-maila


EBA (Emaitezi Bideratutako Aurrekontua) eta Midenet kudeaketa tresnak baliatuz Aurre! Planaren garapenak **2019an zehar 5.185.880 €-ko gastua eragin du.**

Nabarmendu behar da, Aurre! Planean jasotzen ez ziren bi ekintza gehitu dituztela zerbitzuek. Alde batetik, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuak ekintza bat sartu du 2019ko plangintzan, : *“Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta eraginkorra eta ahalduzkoa sustatuko duena bermatzea”*.

Bestalde, Kirol Zerbitzuak 2019ko plangintzan *“Prestakuntza-programen garapenean genero-ikuspegia txertatzea”* ekintza sartu du.

Aurre! Planaren garapenari dagokion guztizko gastua (5.185.880 €), departamentuen arabera, honako hau da:

| Departamentuak | 2019an egindako gastua | |
|--------------------------------------------------------|------------------------|-----------------|
| | Abs. | % |
| Diputatu Nagusiaren Alorra | 588.412 € | % 11,35 |
| Kultura, Turismoa, Gazteria eta Kirolak | 1.724.796 € | % 33,26 |
| Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa | 730 € | % 0,01 |
| Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka | - | - |
| Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa | - | - |
| Ogasuna eta Finantzak | 5.195 € | % 0,10 |
| Gizarte Politika | 2.866.747 € | % 55,28 |
| Guztira | 5.185.880 € | % 100,00 |




2.5. 2017-2019ko balantze alderatua

Aurre! Planak, indarrean egon den epealdian, kudeaketa tresna berrien txertaketa prozesuarekin bat egin du. Hori dela eta, garatutako ekintzen jarraipenari dagokionez irizpide batzuk aldatu dira. Horrek zaildu egin du ekintza horien urtez urtekako konparazioa egitea, eta, beraz, 2017, 2018 eta 2019ko memorietan jasotako datu esanguratsuenak identifikatzea erabaki da, ondoren 2017-2019ko balantze konparatiboaren laburpen txiki bat egiteko.

2.5.1. 2017ko emaitza esanguratsuenak

2017rako planifikatutako ekintzen garapen-mailari dagokionez, aurreikusitako ekintzen garapen-maila honako hau izan zen:



2017an planifikatu ziren ekintzen % 74 jarri ziren martxan, eta horietatik erdia aurreikusi bezala garatu ziren. Taula honetan, Zuzendaritzaren araberrako datuak jasotzen dira:

| Zuzendaritzak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Bukatutakoak | Hasita, baina bukatzeke | Hasteke | ED/EDE |
|----------------------------------|-----------------------------|--------------|-------------------------|---------|--------|
| Diputatu Nagusiaren Alorra | 2 | 1 | 1 | | |
| Berdintasunerako Organoa | 21 | 8 | 6 | 7 | |
| Bizikidetza eta Giza Eskubideak | 2 | 1 | 1 | | |
| Hizkuntza Berdintasuna | 1 | 1 | | | |
| Komunikazioa | 4 | 3 | 1 | | |
| Haurren Babesa eta Gizarteratzea | 14 | 3 | 6 | 5 | |
| Gazteria eta Kirolak | 6 | 1 | 4 | | 1 |
| Kultura | 2 | 1 | 1 | | |
| Funtzio Publikoa | 3 | 2 | | 1 | |



| Zuzendaritzak | Aurreikusitako ekintza-kop. | Bukatutakoak | Hasita, baina bukatzeke | Hasteke | ED/EDE |
|------------------------------------|-----------------------------|--------------|-------------------------|-----------|----------|
| Lurralde Oreka | 1 | | 1 | | |
| Mugikortasuna eta Garraio Publikoa | 1 | | | 1 | |
| Guztira | 57 | 21 | 21 | 14 | 1 |

2017an egiteko planifikatu ziren 57 ekintzetatik 42 jarri ziren martxan, eta horietatik erdia aurreikusi bezala garatu ziren.


Baloraziorik kualitatiboari dagokionez, nabarmendu beharreko alderdia da, departamentu eta zuzendaritzari galdetu zitzaizkion berdintasuneko plangintza orokorrarekin lotuta zein izan ziren garatu zituzten ekintza esanguratsuenak, Aurre! Planaren baitako ekintzak aipatu zituztela. Besteak beste, ekintza hauek nabarmendu zituzten:

- *Indarkeria matxistari aurre egiteko foru politika koordinatzeko batzorde politiko-teknikoa abian jarri eta bere eginkizunetan indartzea.* In 13.1 ekintza. Gizarte Politikako Departamentua.
- *Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakun-deen arteko II. Akordioan sortu den jarraipen batzordean era aktiboan parte hartzea, alderdi politikotik zein teknikutik, Emakundek koordinatuta.* In 16.1 ekintza. Gizarte Politikako Departamentua.



2.5.2. 2018ko emaitza esanguratsuenak

2018an, 74 ekintza planifikatu ziren, eta planifikatutako ekintzen ia erdia aurreikusitakoaren arabera garatu zen:



Horiek garatzeko, 13 zerbitzuz hartu zuten parte.

| Zerbitzua | Aurreikusitako ekintza-kop. | Bukatua | Hasita, bukatu gabe | Ez da egin | ED/EDE |
|-------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|-----------|---------------------|------------|----------|
| Diputatu Nagusiaren Alorra | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| Berdintasunerako Organoa | 24 | 14 | 6 | 4 | 0 |
| Bizikidetza eta Giza Eskubideak | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| Kudeaketa Estrategia | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| Komunikazioa | 3 | 2 | 0 | 1 | 0 |
| Haurrak, Nerabeak eta Gazteria | 7 | 1 | 5 | 0 | 1 |
| Kirolak | 6 | 5 | 0 | 0 | 1 |
| Kultura | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| Lankidetzeta | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| Funtzio Publikoa | 6 | 3 | 3 | 0 | 0 |
| Zerga eta Finantza Politika | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua | 16 | 3 | 8 | 5 | 0 |
| Haurren Babesa | 4 | 2 | 2 | 0 | 0 |
| Guztira | 74 | 34 | 28 | 10 | 2 |



Ikuspegi kualitatibotik, lan-prozesu konplexuak garatu ziren 2018an, zenbait departamentuetako zerbitzuen artean batera garatu baitziren ekintza batzuk. Honako ekintza hau nabarmentzea komeni da, bere izaera estrategikoagatik:

- *Gazteria eta Berdintasun arloetako udal-teknikarien arteko lan-eremua*. In 11.5 ekintza. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa; Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia.

2.5.3. 2019ko emaitzarik esanguratsuenak

2019an planifikatutako ekintzei dagokienez, guztira 88 ekintza planifikatu ziren, eta planifikatutako ekintzen ia bi heren aurreikusitakoaren arabera gauzatu dira (% 66)⁴. Horretarako, 17 zerbitzuek hartu zuten parte.

Hurrengo atalean, 2019an garatutako ekintza estrategikoei buruzko informazio kualitatiboa jaso dugu.

Amaitzeko, **planifikatutako ekintzen kopurua** handituz joan da urtez urte Aurre! Plana indarrean egon den bitartean:

- 2017an 57 ekintza planifikatu ziren.
- 2018an 74 ekintza planifikatu ziren.
- **2019an 88 ekintza planifikatu dira.**

Konparatiboki,

- 2019an, 2017an eta 2018an baino, ekintza-kopuru **gehiago planifikatu ziren, eta betetze-maila ere altuagoa** izan zen; bai amaitutako ekintzei dagokienez, bai amaitu ez arren hasita dauden ekintzen baturari dagokienez.
- 2018an ekintzen garapenean **inplikaturako zerbitzuen kopurua** hazi egin bazen ere (11 zerbitzuek 12ra igaro zen), 2019an Aurre! Planeko ekintzen garapenean erantzukizunen bat izan duten aurreikusitako zerbitzu guztiak inplikatuta dira; guztira 17 zerbitzu.

Garatu ez diren ekintzei dagokienez, egiteke geratu diren ekintzen kopuruak ere behera egin du:

- 2017an hasi gabeko 14 ekintza izan ziren.
- 2018an 10 ekintza ez ziren garatu.
- 2019an 4 ekintza geratu dira egin gabe.

Ekintza berriei dagokienez, Aurre! Plana ezartzean Planean aurreikusita ez zeuden bi ekintza gehiago planifikatu dira, eta biak bukatu dira.

⁴ **Oharra:** 2019ko ekintzen garapen-mailari buruzko grafikoa 11. orrialdean dago.



3- Balorazio kualitatiboa

3.1. Garatutako ekintza aipagarriak

Aurre! Plana indarrean egon den bitartean, hainbat ekintza aipagarriak garatu dira. Ekintza horiek elkarlanean garatu dira, edota Berdintasunerako Organoak garatu ditu.

2019an ekintza hauek nabarmentzen dira:

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta-zerbitzuak ebaluatzea (In3.2)

Ekintza horren garapena Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuak eta Berdintasunerako Organoak elkarrekin egindako lanaren emaitza izan da. 2018an, lan-esparru bateratua berriro definitu zen, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauan eta Aurre! Planean jasotakoa aintzat hartuta, lanerako praktika batzuk ezarri ziren. Zehaztapen horren ondorioz, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta-zerbitzuen ebaluazioa egin da. Aurre! Planean Gizarte Politiken Zerbitzuaren erantzunkizupean jaso bazen ere, azkenean modu partekatuan egin da.

Ebaluazioa egiteko elkarlanean egindakoak, bi departamentuen arteko koordinaziorako oinarriak indartu egin ditu, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta-zerbitzuetan berdintasunaren ikuspegia txertatzeari buruzko gogoetak egiteko aukera eman du.

Ebaluazioa hiru ardatzen inguru gauzatu da:

1. Egungo **erreferentzia-esparruekin koherentea** izango den arreta-eredua definitzea, bai berdintasunaren arloan, bai gizarte-zerbitzuen arloan.
2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumei arreta emateko foru-zerbitzuen ebaluazioa, **berdintasunaren ikuspegitik egitea**, besteak beste honako alderdi hauei erreparatuz: esku-hartzearen ikuspegia, arretaren irismena, eragileen arteko koordinazioa, etab.
3. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumei arreta emateko **foru-zerbitzuak berriz diseinatzeko** proposamena egitea

Lan-prozesuak eragileen eta interes-taldeen artean partekatutako hausnarketa-espazioak barne hartu ditu. 200 pertsona inguruk parte hartu dute ebaluazioan, eta beren hausnarketak eta hobetzeko iradokizunak egin dituzte.

Ebaluazioaren **ondorioak 5 ardatzetan** egituratzen dira:

1. **Arreta-estrategia berriz diseinatzea**, zerbitzu eta prestazio eskuragarriagoak eta artatzen diren pertsonen beharretara egokituagoak eskaintzeko, lege-esparruarekin koherente izanik.
2. Indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko zerbitzuei atxikitako **baliabide materialen eta giza baliabideen hornidura eta antolaketa hobetzea**.
3. Aurrera egitea indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko zerbitzuei lotutako kudeaketa-, partaidetza-, gardentasun- eta **etengabeko hobekuntza-prozesuetan**.



- Profesionalek zerbitzuetan egiten dituzten **esku-hartze zuzeneko prozesuak egokitzea** eta indartzea, ikuspegi feministarekin eta berdintasun-ikuspegiarekin eta arreta-ereduaren gainerako printzipioekin bat etorritik.
- Lotura gehiago egitea eta **sistemen arteko koordinazioa indartzea**, sinergiak hobeto aprobetxatzeko eta erantzun integralagoa emateko.

Indarkeria sexistaren aurrean, erantzun publiko instituzionalaren Protokoloa (In 5.2)

2017an garatu zuen GFAk, eraso sexisten aurrean, erantzun publikorako *Foru-protokolo* bat, eta, horrekin lotuta, 2018an Gipuzkoako herrirentzako [Protokolo eredu](#) bat landu eta plazaratu zuen.

Lanketa horren baitan, 2019an, 28 kasuetan aktibatu da erantzun publikorako Protokoloa, horietan hau da gauzatzen den ibilbide laburbildua:

- Erasoaren berri izaten da**, gehienetan komunikabideen eskutik, eta, bigarrenik, udalen eskutik.
- Erasoa gertatu den **udalerriarekin** aktibatzen da **koordinazioa** bi mailatan:
 - Arreta egokia ematen dela ziurtatzeko koordinazioa: foru eta udal gizarte zerbitzuen artean
 - Erantzun publikoa egiteko baloraziorako koordinazioa. Maila politikoan zein teknikoan informazioa bildu, arreta lehenetsi dela ziurtatu eta erantzun publikoa biktimaren erreparazioa helburu duela ziurtatzen da.
- Horrela baloratu bada, erantzun publikoa egitean da, elkarretaratze edo beste bide batzuk erabiliaz.

Protokoloaren baitan egiten diren koordinazio lanek, Lurraldean, indarkeria sexistaren koordinazioari dagokionez, hobekuntzak identifikatzeko **oso baliagarria izan da**. Hori dela eta, zenbait udaletako

Hausnarbide, indarkeria sexistari buruzko hausnarketa-gunea (In 3.1)

2018 eta 2019 bitartean gauzatu da hausnarketarako gune hau. . Guztira zazpi lan-saio egin dira, eta hauek dira landu diren gaiak:

- Generoaren indarkeriari aurre egiteko Estatu Paktua (2018)
- Indarkeria sexistaren biktimen erreparazioa (2018)
- Gizonekin indarkeria sexistaren inguruko lanketa egiteko bideak (2018)
- Bortxaketaren kultura (2018)
- Indarkeria sexista komunikabideetan (2019)
- Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko eta aurre egiteko esperientziak (2019).
- Sexu-indarkeria haurtzaroan: prebentzioa eta arreta ikuspegi feministatik (2019).

Saioetan, landu diren gaietan adituak diren 29 pertsonak hartu dute parte, eta, horrez gain, indarkeria sexistari aurre egiteko foru-politikan parte hartzen duten Aldundiko teknikariek ere hartu dute parte, entzule gisa.



#DenokZu sentsibilizazio kanpaina (In5.1)

Indarkeria sexistaren prebentziorako, #DenokZu lelopean hasi zuen sentsibilizazio kanpaina Berdintasunerako Organoak 2016ean. Nahiz eta hasiera batean, gizarte osoa zen kanpainaren helmuga, denborarekin, eta prebentzioaren ideiarekin lotuta, gazteei zuzendu zitzairen mezua. Horretarako, Gipuzkoako ikastetxeetan genero rolak eta estereotipoen inguruko lanketa, eta indarkeria sexistaren prebentzioaren lanketa egin zen.

2017-2018 ikasturtean 47 saio egin ziren, Gipuzkoako 35 ikastetxeetan, eta 1.737 ikaslek hartu zuten parte saio horietan, eta 2018-2019 ikasturtean 43 saio egin dira Gipuzkoako 23 ikastetxeetan, bertan 1.280 ikaslek hartu dute parte. Saio horietako zenbaitetan, hezkidetzan adituekin batera, Berdintasunerako zuzendariak hartu du parte.

Lan-esparruan jazarpen sexista prebenitzeko foru-protokoloa egitea (In8.1)

2018an, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak prozesu bat jarri zuen martxan, *Gipuzkoako Foru Aldundian laneko jazarpen sexista prebenitzeko eta aurre egiteko protokolo* berri bat egiteko. Horretarako, barne azterketa bat egiteko lehen fase bat ireki zen, 2018an hasi eta 2019an bukatu zena. Barne azterketarako fase horretan, batetik, jazarpen sexistari buruz langileek duten pertzepzioa jaso da, eta, bestetik, jazarpen sexista kasuak gertatu diren eta horien larritasuna zein den ezagutu da.

Lehen fase horretan abian jarritako lan-prozesuetatik eta lortutako emaitzetatik abiatuta, 2020an Funtzio Publikoko Zuzendaritzak *jazarpen sexista prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloa* egingo du.

Ekintza hau gauzatzeko, Berdintasunerako Organoak etengabeko laguntza eta aholkularitza eman dio Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari.

Berdinbidean programan indarkeria sexistaren lanketa indartu (In11.6)

Berdinbidean programa Berdintasunerako Organoaren tokiko politikaren lan-ildoan garatzen den programa bat da. Programa horretan, hamar mila biztanle baino gutxiago dituzten udalerrientzako, berdintasun politikak gauzatu ahal ditzaten baliabideak eskaintzen dira: udalen berdintasunerako planifikazioa gauzatu eta jarraipena egin ahal izateko aholkularitza, ekintzak garatu ahal izateko diru-laguntza, eta, udaletan landu behar diren edukiak sustatzeko, eduki horiek jorratzeko mintegiak ere landu dira.

2017an indarkeria matxistaren prebentzioa landu zen mintegi batean, Beldur Barik programaren markoan; 2018 eta 2019 urteetan indarkeria sexistaren biktimen arreta hobetzeko bi mintegi egin ziren. Egindako prestakuntza bi saio horietan, udalerriek dituzten benetako indarkeria sexista kasuak erabili ziren abiapuntu moduan, udalerrri horien errealitate eta beharretara moldatuz prestakuntzaren edukia.

2019an, gazteen prebentzioa lantzeko beste mintegi bat egin zen. Beraz, 2017tik 2019ra indarkeria sexistarekin harremana izan zuten 4 mintegi egin ziren, hau da, epealdi oso horretan egindako 7 mintegietatik 4etan landu zen indarkeria sexista.



Berdinbidean programan 18 udalerrik eta 2 mankomunitatek hartzen dute parte, horietatik %38ak 1.000 eta 2.000 biztanle bitarteko udalerriak dira, %20a 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak dira, eta, bai 500 biztanletik 1.000 biztanlerako udalerriak eta, bai 2.000 biztanletik 5.000 biztanlerako udalerriek, %12a dira. Guztira 50.358 biztanle kopurua batzen duten udalerriek hartzen dute parte programan.

Gazteriarekin lan-prozesua haurtzaroko sexu-indarkeria lantzeko (In11.5)

2019an, Gazteria eta Berdintasuneko udal-teknikariekin lan-prozesu bat garatu da, haurtzaroan ematen den sexu-indarkeriaren gaia jorrazteko. Guztira, 4 saio egin dira, eta gaian adituak diren hainbat pertsonak hartu dute parte, gaia ikuspegi ezberdinetatik jorrazteko.

Egindako prozesuari esker, ikuspegi feminista aintzat hartzen duen marko kontzeptual bat sortu dute Gazteriaren eta Berdintasuneko departamentuek elkarlanean, eta haurtzaroko sexu-indarkeria prebenitzeko txiki-txikitatik hezkuntza afektibo-sexuala landu beharko litzatekeela ondorioztatu da.

Gazteria Zerbitzuaren eta Berdintasunerako Organoaren artean sortutako lantaldeak prozesuari etengabeko jarraipena egin dio. Lan-prozesu mota hauetan, bai foru-mailan bai toki-mailan, ezinbestekoa baina aldi berean konplexua da lan-esparru komunak sortzea. Zentzu horretan, bi eremuetako lanerako markoak bateratu izana, nahiz haurtzaroan sexu-indarkeria prebenitzeko edukiak adostu izana, positiboki baloratzen da eta ezarritako helburuak betetzat ematen dira.

Beldur Barik (In 16.5)

2019an ere, hamar urteko ibilera duen [Beldur Barik](#) programan parte hartu du Berdintasunerako Organoak, programa hori erakundeen arteko programa bat da eta Emakundek dauka programa sustatzeko ardura; nahiz eta Emakunderena izan sustapen ardura hori, nabarmena izan da 2019ean Aldundiaren parte hartzea lanketa horretan.

Programaren talde motorra erkidegoko udal berdintasun teknikariek osatuta dago, 2019ean, lehen aldiz, Foru Aldundietako berdintasun teknikariek hartu dute parte talde horretan, beraz Aldundiaren papera geroz eta handiagoa izan da.

Beldur Barik Lehiaketaren esparruan:

- **2017 urtean**, lehen kategoriako lehen saria irabazi zuen Gipuzkoatik (Arrasate) aurkeztutako *Hitzetan* ikus-entzunezkoak.

Era berean Gipuzkoatik (Eibar) aurkeztutako *Artetik ahalduzera* ikus-entzunezkoak irabazi zuen ikus-entzunezko ekoizpen hoberenari saria.

- **2018 urtean**, lehen kategoriako aipamen berezia jaso zuen Gipuzkoatik (Usurbil) aurkeztutako *Harrapa Zak!* ikus-entzunezko lanak.

Ikus-entzunezko ekoizpen hoberenari ere, 2018an, Gipuzkoatik (Eibar) aurkeztutako lan bat suertatu zen saritua: *Fruterixia*.

- **2019 urtean**, lehen kategoriako lehen saria lortu zuen Gipuzkoatik (Usurbil) aurkeztutako *Menstruazioa bai!* ikus-entzunezko alorrean.

Bigarren kategorian, ez ikus-entzunezko atal berrian, Gipuzkoatik (Aretxabaleta) aurkeztutako *Letraz* lanak izan zen garaile.



Lurralde mailan jazarpen sexistari aurre egiteko Protokoloak gauzatzeko Gida (In8.1)

2018an, udalerrietako berdintasun teknikariekin batera, tokiko administrazioetan jazarpen sexistaren prebentziorako eta erantzunerako Protokoloak gauzatzeko gida bat egiteko lanketarekin hasi zen, eta 2019an lanketa horrekin amaitu.

Gida horretan, garrantzia ematen zaio horrelako Protokoloen atzetik dauden lan-prozesu ezberdinei; izan ere, Protokoloak ez dira dokumentu bat, lanerako prozedurak eta edukiak dira. Era berean, prebentzioaren esparrua ere azpimarratu da gidan, askotan, horrelako ekimenetan, bakarrik jazarpen sexista kasuei aurre egiteko prozedurak hartzen direlako kontuan; eta funtsezkoa da prebentzioari daukan garrantzia jasotzea, bi aspektuengatik:

- Egon daitezken jokabide sexista edo jazarpen kasuak identifikatu ahal izateko.
- Jazarpen sexistan bukatu ahal duten jokabideei aurre egiteko, alegia, kasu larrietara ez iristeko.



3.2. Ondorio orokorrak

- Aurre! Planaren jarduera-eremuak oinarri hartuta, kontuan hartu beharreko ondorioak egiten dira:

Arretaren eremua

Oro har, beharrezkoa da zerbitzuak bi norabidetan egokitzea: batetik, genero indarkeriaren⁵ arretan ebaluazioa eta hobekuntza jarraian lan eginez, eta, bestetik, bikotearen esparrutik kanpo gertatzen den indarkeria sexistaren arreta handituz eta hobetuz.

Ebaluazio eta etengabeko hobekuntza helburu, 2015ean definitu ziren zerbitzuak berdintasunaren ikuspegitik ebaluatuak izan dira, eta, lan horri esker, zerbitzu horiek hobetzeko prozesua planifikatzeko eta sortzeko baldintzak sortu dira

Bikotearen esparruan gertatzen den indarkeriaz gain, beste motatako indarkeria sexistaren arreta lantzeko, beharrezkoa da zerbitzuen irismena zabaltzea, indarkeria sexistaren ahalik eta biktima gehienei arreta emateko. Erronka hori, Foru Aldundiaren eskumen-esparrua kontuan hartuta, bereziki garrantzitsua da adingabeen kasuan; izan ere, azken egokitzapen juridikoak direla eta, genero-indarkeriaren kasuan, zuzeneko biktimatzat hartu behar dira. Bestalde, ezinbestekoa da ematen den arreta neskek jasaten duten indarkeria sexistara egokitzea, indarkeria horrek eragin handia baitu haurtzaroan eta, aldi berean, ikusezina baita.

Aurre! Planak, lan-esparruei dagokienez, adierazten zuen lurralde-mailan beharrezkoa zela berdintasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloan artikulazioa sustatzea, bai tokian-toki, bai foru-mailan. Nahiz eta foru-mailan aurrerapen nabarmena egin den artikulazio horretan, ezin izan da neurri berean aurrera egin udal-eragileen artikulazioan. Hala ere, hori gauzatzeko beharrezko baldintzak sortu dira.

Prebentzioa eta sentsibilizazioaren eremua

Prebentzioaren arloan, aipatzeko da *indarkeria sexistaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokoloa*; izan ere, alde batetik indarkeria sexistaren tolerantzia 0 politika indartu du eta, bestalde, Lurraldean dauden koordinazio bideak zabaldu ditu. Bide batez, koordinaziorako beharrak azaleratu ditu. Hori dela eta, erantzun publikoa hobetzeko, eta egiten den arretaren eskutik bideratzen dela ziurtatzeko lanketak egiten jarraitzea beharrezkoa da.

Horrekin batera, Lurraldean landu den #DenokZu kanpaina, Foru Aldundia gerturatu du gazteengan, eta neska eta mutilen arteko berdintasunaren aldeko jarrera sustatzeko balio izan du, horretan oso garrantzitsua izan da indarkeria sexistaren lanketa. Bide batez, bai ikastetxeek, zein parte hartu duten gazteek, oso ongi baloratu dute ekimena.

Prebentzioaren alorrean, aipatzekoa da Gazteriako Zerbitzua eta Berdintasunerako Organoaren artean elkar-lanean abian jarritako prozesua. Gainera, prozesu horrek, Lurraldeko gazteria eta berdintasun teknikarien arteko lanerako espazio bateratua sortu du, haurtzaroan pairatzen den indarkeria sexista sexuala lantzeko.

Atal honetan ere, aipatzekoa da *jazarpen sexistari (lan eremuan gertatzen den jazarpen sexista) aurre egiteko Foru-Protokoloa*; izan ere, egindako lehen fasean garrantzia handia eman zaio lan-prozesuari eta Foru Aldundiko langileen parte hartzeari; gelditzen den bigarren lan fasean (Protokoloak jasoko duen lan-prozesuak gauzatu) erronka izango da lanerako prozedurak eta

⁵ *Bikotearen esparruan gertatzen den indarkeria sexista*



koordinaziorako taldeak ongi definitzea, jasotzen den Protokolo hori eraginkorra izan dadin, ez bakarrik jazarpen sexista kasuei aurre egiteko, baizik eta, horiek prebenitzeko ere bai.

Beldur Barik programak hamar urte bete ditu, eta horregatik hurrengo urratsa izango da, erakundeen artean, programaren ebaluazio bat gauzatzea, eta ebaluazio horretatik eratorzen diren emaitzak kontuan hartzea programak bide berriari ekiteko.

Indarkeria sexistaren aurrean, erantzun publikoaren inguruan hobekuntzarako esparruak ireki dira. Gehienbat udalerrien koordinazio lanetan eta beste arreta zerbitzuen koordinazio lanetan. Erantzun publikoa aurrera eramateko, tokiko administrazioaren maila guztiak aritzen dira elkarlanean, eta oso lanketa aproposa da, arretaren esparruan eta, oro har, koordinazioaren esparruan egin behar diren hobekuntzak identifikatzeko. Ondorioz Lurraldean egiten den erantzun publikoa hobetzea izango da espero dena.

Prestakuntzaren eta ikerketaren eremua

Hausnarbide hausnarketa-guneak aukera paregabea eman du indarkeria matxistaren arloan gogoeta egiteko eta elkarrekin ikasteko. 2015-2019 legegintzaldian aurrera egin ahala, esparru horretan parte hartu duten foru-teknikariak ugariagoak eta askotarikoagoak izan dira (arreta, prebentzio eta foru-berdintasunerako unitateetako langileak). Foru Aldundiko lan-eremu ezberdinetako ordezkarien topaketa horiek, elkar ezagutzeko lan-guneak izan dira, lan-eremu ezberdin horietan dauden beharrez eta, indarkeria matxistaren esparruan, foru-politikak garatzeko baliagarriak izan dira. Horrelako espazioek aukera ematen dute teknikarien eta politikarien ikuspegia eta ezagutza zabaltzeko, nahiz eta beti ez den posible izaten bertan jorratzen diren edukiak lantzen ari diren lan-prozesuekin bat etortzea. Hori lortzea aurrera begirako erronka handia da.

Bestalde, ikerketari dagokionez, arreta-zerbitzuen informazioa eskuratzeko mekanismo eraginkorrak diseinatzeaz gain, etengabeko jarraipen- eta hobekuntza-politika egin ahal izateko, foru-politiken diseinurako egokiak diren edukiak landuko dituzten ikerketa-ekimenak garatzea ere atzematen da.